

**UDALAREN GARABI-ZERBITZUAK PARTIKULARREI LAGUNTZA EMATEAGATIK ORDAINDU
BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA**

12. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. saileko 2. azpisailean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Ordaintzeko betebeharra

2. artikulua.- Prezio publikoak ibilgailuak eraman edo tokiz mugitzeko Udalak kontratatutako garabi-zerbitzua erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek ordaindu beharko dituzte.

Sortzapena

3. artikulua.- Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra zerbitzua ematen noiz hasi eta orduan sortzen da.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

4. artikulua.- Zerbitzua eskatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko da Herritarren Segurtasuneko Alorraren bulegoetan, eta zerbitzua emanen da baldin eta une horretan emateko aukerarik bada.

5. artikulua.- Prezio publikoa Herritarren Segurtasuneko Alorreko bulegoetan jarritako eskudirutako kutxan ordainduko da, Eranskineko tarifak aplikatuta eginen den likidazioari jarraikiz likidazio hori ordaintzeko unean bertan jakinaraziko delarik.

Tarifak

6. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

TARIFA-ERANSKINA

- Garabi bakoitzeko, ordu edo zatiki bakoitzeko	61,30 euro
---	------------